

HIRIGINTZA FITXA. - 7 SO. KIROL PORTUA.
DEBA ALDEA**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.**

Portuaren zerbitzurako zona da, eta bertako jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren lehorreko eta itsasoko azalerak, aipatu jardueren zeregin osagarriak eta portuko jarduera garatzeko aukera bermatzen duten erreserba guneak barne hartzen dituen esparrua da. Emaizazko unitate morfologikoa sistema orokor gisa kalifikatzen da.

1.1. GARAPENEO PLANEAMENDUA.

Inolako Plan Berezirik ez da izapidetu. Portuen Lurralde Plan Sektorialak Aurrerapena besterik ez zuen izapidetu. Portuaren hiritartze eta instalazio proiektua osoki izapidetu, onartu eta gauzatua dago.

1.2. UDALAZ GAINDIKO PLANEAMENDUA.

Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauak.
Portuen Legea.
Kosta Legea.

1.3. HIRI EGITURA.

Kanpoaldeko dikea eta bigarren dikea handitzeak, portuko esparruaren barrualderako sarbidea hobetzeko, hura garatzeko aukera eman du, eta horrenbestez portuko jarduera eta esparrua bera Debako hiri bilbea egitura dezakeen elementu bilakatu da. Deban 7 SO gisa eratu da, baina Mutriku eta Deba artean dagoen 28 SO. "Deba ibaiaren estuarioa" esparruaren zati da.

1.4. ESPARRUAREN AZALERA. 8.832 m²**2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarra.
- 2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Komunikazioen sistema. Portuko erabileren zona. Portuko sistema orokorra (11. artikulua: E.3)
- 2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Portuen alorreko transferentziari buruzko Errege Dekretuaren arabera, eta kanpoaldeko dikearen eta bigarren dikearen handitzeari dagokionez, esparruaren antolamendurako plan berezi bat egin beharko da, harik eta Deba eta Mutriku barne hartuko dituen Deba ibaiaren estuarioko plan berezi orokor bat gauzatzen den arte; orduan, azken plan horren baitan egongo da. 7 SO. "Kirol portua" unitatea 28 SO. "Deba ibaiaren estuarioa" esparruko zati da.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.**3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.**

Plan Bereziak gutxienez honako esku-hartze alderdi hauek xedatu beharko ditu (11. artikulua: E.3):

7.1 HEA. AMARRE GUNE TRADIZIONALAK.

7.2 HEA. PORTUKO ESPAZIO LIBREAK.

7.3. HEA. PORTU ERABILERA ZONA.

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Portuko plan berezian ezarriko dira.

3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Portuko plan berezian ezarriko dira. Babes zorpenaren eraginpeko eraikinek Kosta Legearen Laugarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorpeneko zonan baimendutako erabilerak Kosta Legeko 24 eta 25. artikuluetan ezarritakora egokituko dira.

Eraikuntza. Portuko plan berezian ezarriko dira.

Jabaria. Publikoa (Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan saileko Portu eta Itsas Gaietako zuzendaritza).

Erabilera orokorra. Portuko zirkulazioa eta jarduerak.

Erabilera baimenduak Portuko plan bereziaren araberakoak. Zehazki: Portuko zirkulazioa (Estatuko Portuen Legearen 2.3 artikulua). Portuko merkataritza jarduerak (3. artikulua), ur-kiroletako erabilerak, kultur eta aisialdiko ekipamenduak, azokak eta erakusketak, eta industri edo merkataritza enpresen jarduerak, horien ezarpena justifikatuta dagoenean portuko zirkulazioarekin duten erlazioagatik, sortzen duten trafikoagatik edo erabilera lagungarri gisa portuko erabiltzaileei eskaintzen dieten zerbitzuagatik, eta urtaroaren araberako lur gaineko aparkamendua.

ESKU-HARTZE ALDERDIAK	JARDUKETA
IZENA	
7.1 EA. AMARRE GUNE TRADIZIONALAK	Emakida pribatua
7.2 EA. PORTUKO ESPAZIO LIBREAK	Hiritartzea: zerbitzu lagungarriak, pasealekuak
7.3. EA. PORTU ERABILERA ZONA	Eraikuntza: tren geltokia
	Hiritartzea: zerbitzu lagungarriak

Erabilera debekatuak: Debekaturik daude portuko zirkulazioarekin eta merkataritza jarduerekin bat ez datozen erabilera guztiak. Zehazki, debekaturik dago etxebizitza erabilera eta bestelako egoitza erabilera guztiak.

3.4. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Portuko plan berezian ezarriko dira.

3.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Portuko plan berezian ezarriko dira. Aipatu esparruan edozein esku-hartze egiteko, jabari publikoko lurretan eragiten duenez, beharrezkoa izango da dagozkion emakidak edo baimenak edukitzea eta Hiri Antolaketako Arau hauetan kasu bakoitzerako adierazitako zehaztapenetara lotzea.